

ARBELEKO BORRADORE MEKANIZATUA

1. BALIO PROPOSAMENA

- *Zer behar edo arazo konpontzen duzue?*

Egunero, ikastetxe edo irakasteko bestelako lekuetan ezinbestekoa izaten da arbela edo idazteko pantailaren bat. Irakasleek gauza asko apuntatzen baitituzte bertan. Gaur egun, aurrerakada handiak egon dira eta mota askotako arbelak daude; tamaina desberdinekoak, informatikoak, material desberdinez eginak, kolore desberdinak... Idazteko edota marrazteko ez dago arazorik, espazio handia baitute normalean. Dena borratu edo ezabatzeko orduan dator arazoa; borradorearekin, trapuarekin, papelarekin, eskuarekin... borratzen ibiltzen dira. Dena zikintzeaz gain (irakaslea barne), asko tardatzen da dena ezabatzen eta gainera, batzuetan arbelaren leku guztietara ezin dira heldu.

Arbel mekanizatu-automatiko honekin arazo guztiak konponduko lirateke.

- *Zer bereizten zaitu eta, beraz; zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?*

Gure bezeroak betidanik izan dute lehen aipatutako arazoa, baina ez dute inoiz oentsatu hori hobetu ahal izango zenik. Beti kexatzen dabilta arazo berberarekin; borratu hau bestea, ai nire besoa!, zikindu naiz!, ez naiz iristen, pasaden irakasleak ez du berea borratu, ez da ezabatzen... Keja guzti horien amaiera suposatuko luke arbel borradore honek, eta gure erosleak birritan pentsatu gabe nahiko du. Denbora askoz gehiago aprobetxatuko lukete, ez lirateke zikinduko ezta nekatuko ere ez.